



**Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2024ko azaroaren 5eko bilkuran.**

Gipuzkoako lurraldearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronkei eta balioei heltzeko eta erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa definitu da, gobernu-ekintzaren lidergorako eta orientaziorako tresna nagusia izango dena, eta tresna bizia, dinamikoa eta parte-hartzailea izango dena, lurraldearen eta erakundearen erronka handiak, lortu beharreko helburu estrategikoak eta inplementazioan eraginkortasuna bermatuko duten gobernantza-mekanismoak biltzen dituena.

2024-2027 Plan Estrategikoak dakarren aurrerapen nagusietako bat da Etorkizuna Eraikizen balioak —lankidetzazko gobernantza eta esperimentazioa—, mekanismoak eta “egiteko modua” sustatzea, bai diseinuan, bai garapenean, horretarako formulatu den gobernantza ereduaren bidez.

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legeak 8. artikuluko 1. zenbakian jasotzen duenez, herri administrazioetako organoen betebeharra da dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztea zein helburu eta ondorio lortu nahi diren dirulaguntzen aplikazioarekin, zein epe izango den beharrezkoa horiek lortzeko, zenbateko kostuak aurreikusten diren, eta finantzaketa iturriak zein diren; plana burutzeko, ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Horrekin bat etorritik, funtsezko betekizunia da plana, eta gainera, dirulaguntzak arautu

**El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 5 de noviembre de 2024.**

Para abordar y responder a los retos y valores del territorio de Gipuzkoa y de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se ha definido el Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, como el principal instrumento de liderazgo y orientación de la acción de gobierno, como un instrumento vivo, dinámico y participativo que recoge los grandes retos del territorio y de la institución, los objetivos estratégicos a alcanzar y los mecanismos de gobernanza que garanticen la eficacia en su implementación.

Uno de los principales avances del nuevo Plan Estratégico 2024-2027 es el impulso de los valores —gobernanza colaborativa y experimentación—, los mecanismos y la “forma de hacer” de Etorkizuna Eraikiz, tanto en su diseño como en su desarrollo, a través del modelo de gobernanza que se ha formulado al efecto.

Por su parte, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, recoge en su artículo 8.1 la obligación de los órganos de las Administraciones públicas de concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

De conformidad con ello, el plan es un requisito esencial y previo a la regulación de la subvención, por lo que debe aprobarse con



aurrekoa; beraz, edozein dirulaguntza ezarri aurretik onetsi behar da.

Testuinguru honetan, Estrategiako Zuzendaritza Nagusiak Dirulaguntzen Plan Estrategiko berria idazteari ekin dio eta globaltasun ikuspegi batetik abiatu erakunde guztiarentzako izango den foru plan bakarra diseinatu du.

Horiek horrela, diputatu nagusiak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.-** Onestea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, erabaki honi eranskin gisa gehitzen zaiona.

**Bigarren.-** Dirulaguntzen plan estrategikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren gardentasunaren atarian argitaratzea; eta Estrategia Zuzendaritza Nagusiari agintzea plan hori egunera dezala, dirulaguntzak ematen dituzten departamentuek eman beharreko informazioarekin.

anterioridad al establecimiento de cualquier subvención.

En este contexto, la Dirección General de Estrategia ha abordado la tarea de confeccionar el nuevo Plan Estratégico de Subvenciones y lo ha hecho desde un enfoque de globalidad, diseñando un único plan foral para toda la institución.

En su virtud, a propuesta de la diputada general, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

#### ACUERDA

**Primero.-** Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se adjunta como anexo al presente acuerdo.

**Segundo.-** Disponer la publicación del plan estratégico de subvenciones en el portal de transparencia de la Diputación Foral; y encomendar a la Dirección General de Estrategia su actualización, con la información que deben facilitar a tal efecto los departamentos subvencionadores.

Donostia, 2024ko azaroaren 11 / San Sebastián, a 11 de noviembre de 2024

Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria  
El secretario del Área de la Diputada General

Fdo./Izp.- Juan José de Pedro

